



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abagune aukera, egokiera	«Ozta-ozta ematen zidan abagunea txizarrada bizkor bat eta kaka mokordoa bota nitzan.»	36
abortu lerdoa	«Igual ez da hain abortua zure txakur hori.»	27
adats ile luzea, melena	«...goizean agerian geratu zitzaizkion ile- adats zuriak eta azaleko zimurrek.»	46
adeitasun errespetua	«...hasierako irribarreak eta adeitasuna ahaztuta, kalera bota ninduen...»	53
adurra dariola lerdea parrastadan, ttua irteten	«Baina nire jabe mozoloarentzat nahikoa zen muturren aurrean tititzar pare bat ipintzea adurra zeriola paratzeko.»	34
agure adineko gizona	«...orduan agurea esnatu eta sekulako errieta jasotzen genuen biok.»	56
aiko ene!, horra hor! (harridurazkoa)	«— Aiko , frogatu egingo deusut.»	50
aitortu konfesatu, egia kontatu	«Nesa aipatu dudanez, aitortu beharko dut...»	55
aitzur labaina, bizarra mozteko tresna	«...pisukideen txanpua, bizarra kentzeko bitsa eta aitzurak , koloniak, hagineta pasta, arropen leuntzailea...»	108
ajatu maiztua, gastatua	«Ule eta bizar zuriok, aurpegi ajatu hau, izan dodan bizimodu gogorraren ondorio dira.»	52
algaraka barre karkaraka	«Ez pentsa atxurraren eraginez nabilenik algaraka , lagun.»	50
amorante maitalea	«...bere amorantearekin elkartzera berriro? Batek daki, baina lana bilatzera ez, hori ziur.»	37
amorr errabia, haserre bizia	«Beste behin, erdizka amorr erdizka jelsiaz, biak bainera barruan txortaldiaren erdian zeudela...»	37
amu arrainetarako piezatxo	«Berehala irentsi zuen amua katxaloteak.»	62
anburu giltzurruna (?)	«Badakizu zergatik itzi behar izan neutsan garagardoa edateari? Ba sekulako kaltea egiten eustalako anburuetan .»	49
antxintxika lasterka, arineketa	«...txanpon bat ipini zuen saltxitxa-txakurraren ahoan, eta berau antxintxika desagertu zen kale kantoitik.»	51
apar bitsa, haguna	« Apar arteko jolas goxo eta irristakor haiez gain...»	15
apeta guraria, kapritxoa, gutizia	«...Santik bazekien niri bestelako apetak betetzen biok bakarrik geundenean...»	15
arakatu bilatu, ikertu	«...zakarren artean arakatzen ibili; tabernan sartu eta jendeak lurrera botatzen zituen hondakinak...»	43
arbeletxe abrikota, albarikokea	«...batzuetan okaranezko mermelada, beste batzuetan marrubizkoa, edo bestela arbeletxezkoa ...»	69
arboloste zuhaitz eremua	«...handik apur bat urrunduta, arboloste edo lorearteren batera eramaten saiatzeari.»	17
arbuiatu mespretxatu	«...marihuanaz elikatzen zela bururatu zitzaidan eta arbuiatu egin nuen.»	86
arerio etsaia, aurkaria	«Baina Harryk kontuan hartu ez zuena zen etxean bertan zeukala arerioa ...»	35
argibide informazioa	« Argibide ona ote ziren irudi haiek...»	92
arkakuso ardia, txakurren... parasitua	« Arkakusoak , lapikoa ondo hornitu ondoren, sutan utzi zuen, ardo zuriari, eta kontaktari lotu zitzaion osterara ere...»	99




arkupe arkuazpi (soportal)	«...elurra ari zuen gau baten hiriguneko arkupe batzuetatik pasatzean ezagutu nuen pertsonaia bitxia.»	45
arlote etxegabea, bagabundoa, eskalea	« Arlote koadrilaren arrastorik ez zen ageri...»	78
arrapaladan arinetan, ahalean	«...pizza banatzaileari ostu, eraso eta arrapaladan irten...»	43
arrasto aztarna	«Arlote koadrilaren arrastorik ez zen ageri, ordea, ez han ez arkupeetan.»	78
ase bete, nahia egin	«...sexu grina nik baino hobeto aseko ziona, behintzat.»	16
asegaitz bete ezina	«Biziotsu asegaitzak , bitartean, keinua egin dit haren lepoaren gainetik begi bat itxiz, irribarre maltzurraz.»	121
atoan berehala, segituan	«Haren sudur okerra, haren toteltasuna, haren keinu bitxiak, haren tikak..., atoan ohartu nintzen zein zen ezaugarri haien arrazoia.»	99
atxur mozkorra	«Ez pentsa atxurraren eraginez nabilenik algaraka, lagun.»	50
baba kailua, maskurra, ikortzirina	«Nekatuta nago jadanik kanpaia jotzen. Begira nola dauzkadan eskuak, babaz beteta! Joder, ez dakit zer egin, Beltza!»	102
basa sen instintu basatia	«...egia esateko, azken ezaugarritik ni neu ere ez naiz libratzen, baina ze arraio, ni txakurra naiz, animalia, bere basa senaren arabera jokatzeko duen izakia!»	108
begitandu iruditu	«...berehala begitandu zitzaidan...»	91
beharleku lantokia	«Askoz hobeto beharlekuan egunero zortzi ordu emoten debezan gixajo horreek guztiak baino.»	51
beherako kaka zirina, diarrea	«Dena den, egoera guztietatik larriena beherakoa neukanekoa izaten zen.»	69
berba egin hitza egin, mintzatu, solastu	«Handik gutxira bizkortu egiten zen, zati bat ematen zidan ahora eta, burua laztanduta, berba egiten jarraitzen zuen.»	79
berna zangoa, hankaren beheko atala	«...puta biziotsu sutsu zikinak bere atzeko hankak jabearen bernaren ale banan kokatu...»	56
betazpi begi zuloa, begiaren azpialdea	«Aspalditik lo egin ez duenaren betazpi sakonekoa, zikin itxurakoa...»	82
bildoski arkumea, artxoa	«...bazkaritik geratu zitzaizkion bildoski hondakinak...»	79
biok ala biok batak eta besteak, biok ere	«Halakoetan dokumentaletako piztia harraparien gisa jokatzeko baikenuen biok ala biok .»	16
birao araoa, juramentua, maldizioa	«...ia faltan botatzen nituen pisukideen berba zatar eta biraoak ...»	45
bits aparra	«...tapoia kendu eta bertatik irten zen bits ugaria zurrupatu egin zuen.»	64
bitxi arraroa, berezia	«—Oso bikote bitxia osatzen duzue zure txakurrak eta zuk...»	17
bolero musika mota	«...eta barruko bolero musikak...»	79
burusi manta	«—Ondo egin dozu lo, lagun? —esan zidan, lurreko kartoi eta burusiekin pakete bat egiten zuen bitartean.»	47
burutazio ideia, pentsamendua	«Sarritan izan nituen horrelako burutazioak kalean emandako lehenengo gauetan...»	44
coitus interruptus txortalditik irteeta	«Eta coitus interruptus haiek oso gorputzaldi eskasa uzten zidaten.»	18




demasa gehiegizkoa	«...eta keinu demasak eginez...»	85
ditxoso behin eta berriz aipatua	«Makina bat bider entzunda neuzkan estudiante garaian egindako ditxoso bidaia hari buruzko batailatxoak.»	24
ei omen, diotenez	«Hobe da Thailandiakoa hartzea, ze horiek badakite masajeak ematen, eta gainera oso goxoak ei dira.»	31
elizkizun elizako funtzioa, meza...	«Dena dela, asto horrek ez dio ardura, ze elizkizunak ohikoak izan ziren, eta hor ez zen ezer interesgarririk gertatu.»	77
errape behien esne tokia	«...eskoteko azken botoiak askatu eta bularretakoa kendu zuen, sekulako errapeak utziz agerian.»	65
erregutu mesedeka eskatu	«...bada Santik, nire jabe zintzoak, txakurtxo ona izateko erregutu zidalako...»	14
errukarri errukitzen dena, sentikorra	«Ez nuen, baina, gogor saiatu beharrik izan, Itziar errukarria nire beharraz ohartu eta ahora eman baitzizkidan ogi-puska batzuk tarteka-marteka.»	78
erruki gupida	«...eta karrerako ikaskide ohiaren errukiari esker irten ahal izan ginen estualditik.»	14
esan erran	«...“Txo, zu edukiko ez bazintut...” esan ostean, zurrungaka hasten zen berehala.»	22
esker itzela, egundokoa, haundia	«...eta sarritan pizza espezialtu esker jaten genuen erdi bana telebistan gustuko saioak ikusi bitartean...»	15
estimatu gogoko izan, apreziatu	«...Santik nik baino are gehiago estimaten zituen kalerako irteerak...»	16
etsita adore gabe, lur jota	«Hori dela eta, ordu asko eman behar izan nituen ispiluaurrean aurrean neure burua aztertzen, ikusten nuenaz konbentzitu ezinik, etsita .»	107
ezbaian egon --- dudan egon, zalantzatan	« Ezbaian egon nintzen apur batean, joan ez joan, ez bainekien ezer probetxugarriarik aurkituko ote nuen leku horretan...»	81
ganorabako estilo gutxikoa, klase gabea	«Bai ohartu, ordea, mutil koadrila baten barruan zegoela, nahiko jende ganorabakoa , trajea oso ondo geratzen ez zitzaiona...»	77
giltzarrapo kandadua, morroiloa	«Julen giltzarrapo askatzeko ahaleginak egiten hasi zen, zulo txikian giltza sartzen asmatu ezinik...»	87
gixajo koitadua, inuzentea	« Gixajo baten moduan ibiltzeko, egunero paseoan eskutik helduta, noizbehinka txortaren truke? Ez du merezi.»	24
gogoangarri oroitzekoa, ez ahaztekoa	«Beraz, Floren etxean zegoela, lehenagoko pisuko pribilegio gogoangarriak ahazturik...»	15
gomuta oroitzapena, oroipena	«Une horretan isilaldia egin zuen etxeko sukaldariak, burura gomuta bereziren bat etorri balitzaio bezala...»	98
gomutatu oroitu, gogoratu, akordatu	«...azkenean hemengo bizimoduaz gomutatzen hasi nintzan, herriminez.»	52
grina pasioa, gogo bizia	«...sexu grina nik baino hobeto aseko ziona, behintzat.»	16
gutizia gurari berezia, apeta, kapritxoa	«...Vanessaren gutiziari esker nengoela etxe berrian...»	66
harrezkero ordutik aurrera, orduz gero	«...sekulako aldaketak igarri eta nozitu nituen nik harrezkero .»	36
harrikoa egin ontziak garbitu	«...zein plateretatik jan behar zuen bakoitzak, zein zen modurik praktikoena harrikoa egiteko ...»	13
hats kiratsa, sunda ezin txarragoa	«Aaaa, zelako mina! Eta zelako hatsa !»	89
higuigarri nazkagarria	«Buuaah! Hori bai dela higuigarria !»	26




hodeiertz zerumuga, horizontea	«...txano izarduna buruan eta begirada hodeiertzean .»	91
iltzatu sastatuta, inkatuta (sartuta)	«...baina lukainkaz iltzaturik neukan laguna histerika paratu eta zarataka hasi zen.»	72
inkisidore zigortzaile despotikoa	«...hirurok batera egoten ginenean izaten zen, ugazaba inkisidorearen begirada zorrotzetik aske sentituz gero guztiz bestelakoa baitzen egoera.»	15
inpotente tentetzen ez zaion gizonezkoa	«Konplexuz edota apetaz betetako pertsona faltsuak, gizonezko ahobero baina inpotenteak edo isurtzaile azkarrak, emakumezko ezin maltzurragoak...»	107
inuzentekeria lelokeria penagarria	«Neskatoei inuzentekeriak esaten eta gaztetxoentzako tabernetan ibiltzen...»	18
iraindu laidotu, maradikazioa bota	« Iraintzerakoan bere biraoei indar handiagoa eman uste baitzien erdaraz arituz gero.»	14
isurkia isuritako likidoa	«...eta isurkiaz bular aldea igurtzeari eman zion...»	95
isurtzaile berehala esnetzen den gizonezkoa	«Konplexuz edota apetaz betetako pertsona faltsuak, gizonezko ahobero baina inpotenteak edo isurtzaile azkarrak, emakumezko ezin maltzurragoak...»	107
itaundu galdetu	«...baina hemen etheen prezioaz itaundu orduko...»	53
itsualdi kolokoia	«Buruhandiak sekulako itsualdia zeukan edandako Guinness litroen eta olerkariari gorroneatutako porro ugarien kontura.»	86
itzarri esnatu, izartu, iratzarri	« Itzarri mesedez, itzarri! Eta itzarri zen Julen.»	88
jelosia inbidia	«Beste behin, erdizka amorruz erdizka jelosiaz , biak bainera barruan txortaldiaren erdian zeudela.»	37
jendilaje jende nazkantea, gaizto-desatsegina	«...zelako jendilajea aurkitu behar nuen...»	92
jo txortan egin, larrua jo, amodioa egin	«Bai, aitortu egin behar dut: azkenean jotzen amaitu nuen neska biziotsu harekin.»	70
jomuga xede, helburua	«...poteoan ibiltzen ziren koadrilak bihurtu ziren aurrerantzean nire jomuga .»	56
kankailu handikotea, ez itxura finekoa	«...protestatu zuen kankailuak , lagunen barreen artean.»	61
kanpaia jo masturbatu (giz.) (eskuak gora t beh	«Nekatuta nago jadanik kanpaia jotzen . Begira nola dauzkadan eskuak, babaz beteta! Joder, ez dakit zer egin, Beltza!»	102
kanpera larruzko botak	«Florenen kanperak haginka deskojonatzea?»	38
kardabera kardua, motza, itsusia	«Eta niri beti tokatu behar zait kardabera , ala?»	61
katigatu lotura, engantxatuta	«...eta berak harantz tira, nik honantz tira, kontua da katigatuta geratu ginela...»	72
kilikagarri ernagarria, pizgarria	«Nik bideo lelo haietan ez nuen ezer kilikagarririk ikusten: tentel itxurako eskiatzaile batzuk...»	105
kizkur kiribildua	«Alu-ile kizkurra horiz tintatua, patilla luzeak...»	19
konkordun lepo okerra eta handitua	«Ez da ez hanka motza, ez konkorduna ez...»	28
konortea galdu konozimentu barik,	«...multzo handi baten kontra eta lurrean etzanda geratu zen, konortea galduta .»	88
korrokada ahopats zaratatsua	«Sekulako korrokada bota zuen eta barreka hasi zen.»	79



kristorenak eta bi mundialak, inon direnak	«...nire gosea asetzeko, berriz, kristorenak eta bi egin behar izan nituen.»	43
kuluxka lotalditxo	«...eta kuluxka atseginak egiten nituen telebista aurreko besaulkian etzanda.»	
lar oso, gehiegi	«...eta horren ondorioz ezin esan daiteke lar ondo konpontzen ginenik.»	13
larrutan egin txortan egin, amodioa egin	«Hemen larrutan egitea miraria dela...»	24
legez bezala	«Papuako pigmeoek egiten duten legez .»	27
letagin betortza, hotz luzea	«Saltoka dabilta denak: baten batek zapaltzen banau ikusiko du, bizitza osorako utziko dizkiot nire letaginen aztarnak izterretan!»	118
lohi zikina	«...egokitu nintzen Julenen ohearen alboko alfonbra latz eta lohian .»	92
lukainka zakila	«— Ene, zer pasatzen zaio Txoren lukainkari ?»	15
mahuka manga	«Gero zurrut egin zion ardoari, mahuka luzeaz muturrak garbitu eta berriro ekin zion.»	51
maiz sarritan, askotan	«...eta maiz ateratzen ninduen paseatzera etxe ondoko parke zabalera, bion onerako atera ere.»	16
makina bat bider hainbat bider, askotan	« Makina bat bider entzunda neuzkan estudiante garaian egindako ditxosozko bidaia hari buruzko batailatxoak.»	24
mamala neska kankala, lela, tentela, tuntuna	«Kubatarrei gustatu egiten zaie larrutan egitea, ez hemengo mamala estuei bezala.»	24
marmarti ahapeka aritzen dena, gaizki esaka	«...parrandakide ezin eskasagoa zeukan: pisuko pottoki marmartia , Floren.»	18
mehatxuka jotzeko keinua eginez	«“Que no me sigas, aborto!” oihukatzen zidan, eskua mehatxuka jasoz...»	14
miazkatze milikatu, zupatu	«Utzi balidate, sikeran, euren sartze, ateratze, miazkatze eta zurrupatze saioei begira egoten.»	36
montxibero --- alu beroa (?)	«...txakurra eme montxibero eder bat izango zen...»	81
mordoilo traketsa, dorpea, nahastea	«...horrela hitz egiten zidan, ahoskera mordoiloaz ...»	86
mulata neska beltzarana	«— Den-denak, batez ere mulatak .»	24
narziso beraren itxuraz maiteminduta	« Narziso hutsa zen Floren, baina hori ez zuen inola onartuko inoren aurrean.»	24
noraezean norabide zehatzik gabe, jitoan	«Betiko neska-lagunak popatik hartzera bidali zuenetik noraezean zebilen.»	18
nozitu jasan, pairatu	«Sekulako aldaketak igarri eta nozitu nituen nik harrezkero.»	36
oinaze sufrimendua, pairamena	«Etxeko balkoian emandako gaueko oinazea ere ezin zen konparatu geroztik kale gorrian pasatu nuenarekin.»	44
okaran arana, fruta mota (ciruela)	«Gustuko duzu okaranezko mermelada, txakurtxo?»	65
olgetan jolasean, jostetan	«...txakurremearekin olgetan hasi eta, handik apur bat urrunduta...»	17
oparo ugaria	«...dena ere eskuko poltsa oparotik aterata.»	78



oratu heldu	«Belarritik oratu zidan, gogor, eta horrelaxe hasi zen...»	65
osterantzean bestela, ezpabere	«... osterantzean urte mordoa pasatu beharko neban...»	54
osteratxo paseotxoak, ibilalditxo	«Zenbat bider gogoratu naizen ohean eskaintzen zenidan berotasunaz, parkean egiten genituen osteratxoak , elkarrekin bainatzen ginen egunez...!»	117
pagotxa mauka, zortekoa	«Eta zelan lortu du pagotxa hori?»	28
patal torpe, eskas, ahultxo	« Patal samar ibiltzen zen erdaraz egiterakoan eta mundu guztiari egiten zion euskaraz...»	14
patxadatsu emeki-emeki, astiro	«...hiriko alderi zaharrerantz abiatu nintzen berriz ere, patxadatsu ...»	74
pigmeo epotxa, kakanarrua	«Papuako pigmeoek egiten duten legez.»	27
pikutara antzarrak ferratzera	«Orduan zer egin behar dugu eurekin, pikutara bidali?»	59
pitinka-pitinka apurka-apurka, gutxinaka	«...are jasangaitzagoa sandwichak nesken atzamarren artean pitinka-pitinka zelan txikitzen ziren ikustea...»	68
piura itxura, jitea	«...paseatzeko baino inauterietarako askoz aproposagoa izan zitekeen piura harekin.»	19
piztia basa animalia	«Halakoetan dokumentaletako piztia harraparien gisa jokatzeko baikeuen biok ala biok.»	16
popa ipurdia	«Zer diozu? Norbaiti popatik ematea? Zoratuta zaude, ala?»	26
porrokatu amorratua, kontrol bakoa	«Nire pisukide ohiak ere, edale porrokatuak izan arren...»	50
potrojorran alferkerian, denbora pasa	« Potrojorran egoteaz gain ezer egingo bazenu!»	30
pottoki “pitufo”, marrazkietako izakia	«Zelako itxuraldaketa izan duen honek ere! Badirudi pottoki marmartia zorionsua dela orain, hori adierazten du bere aurpegierak behintzat.»	119
putre saia, hegazti haratustel jalea	«Nik, oster, ez nuen aitzakia askoren beharrik izan pisuko putreak nahiz mutiko pijoak egin zizkidaten proposamenei uko egiteko.»	110
sekulako egundokoa, itzelezkoa	« Sekulako korrokada bota zuen eta barreka hasi zen.»	79
sena instintua	«Apur baten deskantzatu ondoren, neure senari jarraituz...»	74
sentibera hunkibera, sentikorra dena	«Hara eraman ninduen neska sentibera hark.»	83
sikera behintzat	«Utzi balidate, sikera , euren sartze, ateratze, miazkatze eta zurrupatze saioei begira egoten.»	36
soilune ilerik gabeko gunea	«...handitzen ari zitzaizkion soiluneak nola edo hala disimulatzearen...»	19
sudur zapal sudur txato zabala (boxealariena)	«Janri errearen usainaz ez konturatzeko, Lakuako arkakusoaren sudur zapalak ostia asko hartuta egon behar zuela iruditu zitzaidan.»	101
suhartasun inpetua, bat-bateko kemena	«...Julenen suhartasun alferra...»	80
tarteka-marteka lantzean behin, aldizka	«Ez nuen, baina, gogor saiatu beharrik izan, Itziar errukarria nire beharraz ohartu eta ahora eman baitzizkidan ogi-puska batzuk tarteka-marteka ...»	78
tentelkeriatan ibili lelokeriatan aritu, mozolokeriak	«...erasotzerakoan tentelkeriatan ibiltzen ez zen harrapatzaile errukigabea, eta luze barik gertatu behar zuena gertatu zen.»	35



tinkotasun jarrera ziurra, irmoa	«Harryren tinkotasunaren aurrean...»	25
tirano despota	«Beti-logura aurpegiko eta gorputz txikiko tirano handi hura nahiko desatsegina izaten zen...»	13
traba oztopoa	«—Txakurrak behin baino gehiagotan ikusi ditut taberna barruan, eta ez digute trabarik ipiniko elkarrekin sartzeko.»	81
txizerrekatxo parrastadatxoa	«...eta segituan txizerrekatxo horixka botatzen hasi zen.»	94
txortaldi koittoa, larru jotzea	«Beste behin, erdizka amorruez erdizka jelsiaz, biak bainera barruan txortaldiaren erdian zeudela...»	37
txotxindua txotxolotua	«...berriro ekin zion bere bizitzaren kontaktari, agure txotxinduak euren batalaitxoan berri ematean baino are pozago.»	100
txukun apaina, garbia	«—Ze txakur polita daukazu! Zelan garbitzen duzu hain txukun egoteko? — galdetzen zion...»	16
ugazaba jabea, nagusia	«...hirurok batera egoten ginenean izaten zen, ugazaba inkisidorearen begirada zorrotzetik aske sentituz gero guztiz bestelakoa baitzen egoera.»	15
ule ilea	« Ule eta bizar zuriok, aurpegi ajatu hau...»	52
umel hezea	«...lorategi ilun eta umeletan ezkutaturik.»	44
uxatu aldenarazi, urrunarazi	«—Txogatik ez dugu ezer egin, neskak uxatu egiten ditu eta —esaten zuen marmarrean...»	21
xarmagarri enkantu handikoa, txunditzen duena	«—Gaeuan gertatu zen onena, ospakizun luze bezain xarmagarriaren amaiera aldera.»	79
zantzo barretzarra, karkara	«Agurea ezohiko persona zen, eta grazia handia zeukaten haren zantzoek ...»	55
zantzu seinalea, arrastoa, aztarna	«Agureak, ostera, ez zuen mozkor zantzurik ageri.»	50
zarpail txarto jantzia, arropa zaharkituz	«Zuk orain begi aurrean agure zarpail bat baino ez dozu ikusten.»	47
zatar itsusia eta zikian	«Gainera, hain zatarra izanda (...) ziur zaude neskaita hori normal-normalala dela?»	28
zeken zikoitza (<i>eskuzabala</i> -ren kontrakoa)	«Bada, morroi alfer, zeken eta zikin bat besterik ez.»	108
zirri laztan lizuna, ukitu sexuala	«...elkarrekin sartzan ginen bainerako ur epeletan, eta han zirriak egiten aritzen ginen presarik nahiz presiorik gabe...»	15
ziztrin balio gutxikoa, ezdeusa, pepeloa	«Gauerdia ondo pasatuta, tabernaren jabea, ile kizkurreko gizon ziztrin bat, erregutzen hasi zen musikariei behingoz isiltzeko...»	84
zurrungaka lotan arnasa soinuak egin	«...“Txo, zu edukiko ez bazintut...” esan ostean, zurrungaka hasten zen berehala.»	22
zurrupatze miazkatzea, felatioa	«Utzi balidate, sikan, euren sartze, ateratze, miazkatze eta zurrupatze saioei begira egoten.»	36
zurrut egin edan	« Egin daigun zurrut banda handi haren omenez!»	49